



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko uztailaren 2an

74 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagaien prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa (4. or.).
- Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanaldia murrizteari buruzko legedia bete dezan (7. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak (9. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan hobekuntza lanak egin ditzan. Erretiratutako mozioa (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, 2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruzkoa (12. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten errotuluak kendu izanari buruzkoa (12. or.).

- Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina, 2001eko Aurrekontu Orokorrek hirugarren munduarentzako ezartzen dituzten diru kopuruei buruzkoa (13. or.).
- Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, opiazeoen inguruko zenbait konturi buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak egina, telefonia mugikorreko estazioek osasunean izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina, Nafarroako Gobernuak Aukera Berdintasunari buruzko Plana Parlamentura hemendik gutxira igortzeko asmorik ote duen jakiteko (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (17. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babesaren eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, aurrea hartzeko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zaintzea.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 53. artikulua ezartzen du "barne osasuna eta higiene alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkiola Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea."

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5.14 artikulua ezartzen duenez, Foru Komunitateko osasun administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, alde aurratik aurrekontu zuzkidura berekia eta programazio berarizkoa eginez gero egiazki abiatuko direnak.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, 1998ko martxoaren 5eko ebazpen bat zela medio, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen zuen Foru Dekretua onetsi zuen.

Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena Levonogestrel printzipio aktiboa duten sendagaiak finantza zitzan, baina Gobernuak hura betetzeari uko egin dio. Bada, osasun sistema nazionaleko farmazia laguntza jasotzeko eskubidea duten Foru Komunitateko herritarrek –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak luzaturiko Banakako Osasun Txar-

tela dutenek– aipatu printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate horiek Nafarroako Foru Komunitatearen baliabide berekien kargura jasotzen dutela bermatzeko, ondoko Foru Lege proposamena: Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena.

#### **Xedapen gehigarria**

**Lehena.** Irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretuaren eranskinean Levonogestrel printzipio akti-

boa duten farmazia espezialitate guztiak sartuko dira.

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Bigarrena.** Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztu eta, beharrezkoa baldin bada, sortu egingen du aurrekontu kontusail bat, foru lege honen ondorioz 2001. urtean sortzen diren gastuak finantzatzeko.

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legearen 70. artikulua dioenez, Estatuak eta autonomia erkidegoek osasun planak onartuko dituzte beren eskumenen esparruan, eta bertan aurreikusiko dituzte osasun arloan urtean edo zenbait urtetan egin beharreko inbertsioak eta ekintzak.

Osasun arloko koordinazio orokorrean honako hau sartuko da:

- Osasun arloko langile, zentro edo zerbitzuei dagokienez dauden beharrak ebaluatzeko gutxieneko eta oinarrizko indize edo irizpide komunak, oro har, ezartzea, eta halaber, baliabide instituzionalen eta osasun langileen inbentarioa eta osasun mapak.

- Osasun arloko prebentzio, babes, sustapen eta laguntzaren gaietan gutxieneko helburu edo xede komunak zehaztea.

- Osasun sistema koherente, harmoniko eta solidarioa lortzeko jarduketan eta lehentasunen esparrua.

- Oro har ezartzea osasun programa, zentro edo zerbitzuen eraginkortasuna eta etekinak ebaluatu ahal izateko gutxieneko eta oinarrizko irizpide komunak.

Osasun planak beraz, osasun arloko politika eta hura osatzen duten programak gauzatu ahal izateko behar diren baliabideen aplikazioa gidatuko ditu denboran.

Osasunari buruzko Legea, V. kapituluaren Foru Komunitateko Osasun Plana taxutzeaz eta onesteko moduez mintzatzen da. 1991ean onartu zen Nafarroako Foru Komunitaterako lehendabiziko osasun plana, 2001. urtera arte indarra izan zezan. Horrenbestez, beharrezkoa da osasun plan berri bat prestatzea, une hauetako errealitateari aurre egiteko.

Baliabideak atxikitzeak eta programak gauzatzeko berarekin ekartzen dutenez plana noizko prestatu den, denbora tarte horretarako aurrekontu ekitaldi bakotzeko urteko kontsignazioa egin beharra, aurrekontuak onartzeko Parlamentuan ahal denik eta kontsentsurik handiena bilatzea beste biderik ez dago.

Era berean, beharrezkoa da Parlamentuan ahal den kontsentsurik handiena lortzea planean sartu beharrezko programa eta helburuak definitzeko, Foru Komunitatean denbora tarte batean eginen diren osasun ekintzak gidatuko baititu eta herritar guztiengan izanen eragina.

Hori dela eta, honako lege proposamen hau aurkeztu dugu:

**1. artikulua.** Azaroaren 23ko 10/1990 Legearen 22. artikulua aldatzen duena. Hauxe dio, hitzez hitz:

Gobernuak, Osasun Departamentuak proposaturik eta Nafarroako Osasun kontseiluak txostena eman ondotik, osasun plana igorriko du Parlamentura, eztabaidatu eta onesteko, indarra duen plana amaitzen den urtearen barrenean.

Osasun planak alderdi hauen ingurukoak bilduko ditu: osasun egoeraren analisia (osasuna baldintzatzen duena, osasunaren egoera, osasun

zerbitzu eta prestazioen analisia); lehenbizi ezarri, helburuak eta gauzatu beharrezko programak formulatu (xedeak eta eskuhartzeak osasun zerbitzuetan, xedeak eta eskuhartzeak garrantzizko osasun arazoetan sektore arteko ekintzekin); planaren metodologia eta ebaluazioa; kronograma eta entitate arduradunak; osasun planean aurreikusirik ekintzak betetzeko behar diren baliabideak zenbatestea.

Osasun plana berrikusi ahal izanen da haren indarraldian zehar, baina beharrezkoa izanen da Parlamentuak onestea berrikuspen hori, Nafarroako Osasun Kontseiluak txostena eman ondotik.

Osasun Departamentuak planaren indarraldia- ren urte bakoitzaren lehendabiziko hiru hilabete igorriko du Parlamentura planaren helburuen ebaluazioa eta betetze mailaren analisia, bai eta hura betetzeko gauzatutako ekintzen txosten zehatza ere.

Plana amaitu eta hurrengo urteko lehen hiru hilabetean eta plan berria aurkeztu aurretik, Osasun Departamentuak Parlamentura igorriko du planaren ebaluazioa eta behin betiko analisia.

### **Xedapen iragankorra**

Lege proiektu hau izapidatzen ari dela, Gobernuak, Osasunari buruzko Foru Legearen 22. artikuluan xedatuaz baliatuz, osasun plan berria onartzen badu, ez da aplikatuko aldaketa honetan xedatzen den bezala izapidatu arte.

### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko maiatzaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko irailaren 19ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanaldia murrizteari buruzko legedia bete dezan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanaldia murrizteari buruzko legedia bete dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea. Mozio hori jabelduraren ondorioa da eta, Erregelamenduko 183. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Nafarroako Gobernuari eginiko jabelduretatik sortutako mozioak arautzen dituzten 183.2. artikulua aplikatuz, mozio bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran izapida dadin. 35 orduetako buruzko Nafarroako legedi indarduna aplikatuz Nafarroako Gobernuak eginiko politikari buruzkoa da mozioa.

Ekainaren 14an Parlamentuak eginiko Osoko Bilkuran talde sozialistak aurkezturiko jabeldura bat eztabaidatu zen. Hona jabeldura haren argudio nagusiak:

Martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legeko lehen artikulua esaten duenez, foru lege horren xedea da "neurri publikoak ezartzea lanaldia berrantolatu eta murrizteko eta hogeita hamabost orduko lanaldia progresiboki ezartzeko Foru Komunitateko Administrazioan, Nafarroako toki entitateetan eta

Foru Komunitateko produkzio-sektore ezberdinetako enpresetan". Hirugarren artikulua xedatzen duenez, "asteko 35 orduen urteko zenbaketak 1.592 ordu egiten du, guztira". Eta 4. artikulua hauxe esaten du: "Nafarroako Gobernuak... lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuiko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek parte-hartze nagusia badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka".

Abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legeak zioen azalpenean esaten duenez, 35 orduko lanaldia ez zaie enpresa publikoei edo Nafarroako administrazio publikoek parte-hartze nagusia dutenekoei aplikatzen, eta utzikeria leporatzen die gure erki-degoko administrazio publikoei. Horregatik ezartzen du, bere artikulua bakarrean, enpresa horiei 6/1999 Foru Legeko 3. artikulua aplikatu behar zaiela; artikulua horrek astean 35 orduko lanaldia ezartzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzera behartzen du. Administrazioak zuzenean edo zeharka parte-hartze nagusia dueneko enpresatzat joko dira sozietate-kapitalaren gehiengoa edo administrazio-kontseiluan boto-eskubideen gehiengoa daukanekoak.

Aurreko guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak proposatu zuen jabeldura-eztabaida bat egitea 35 orduen gainean Nafarroan indarra duen araudia aplikatzeko Nafarroako Gobernuak egin duen politikari buruz. Eztabaida horretan, Nafarroako Gobernuak erantzuna eman beharko zien afera horri dagokionez aplikatzen duen politika orokorrari buruzko iritzia ematerakoan Parlamentuko talde honek dauzkan eta jarraian agertzen dituen zalantzei.

• Nafarroako Gobernuaren ustez, zein enpresetan aplikatu behar diren 35 orduak, legeari jarraituz, zeinetan aplikatzen duen asteko 35 orduko lanaldia eta zeinetan ez eta zergatik.

- Aipaturiko lanaldia aplikatzen deneko enpresetan, zein ekitaldi ekonomikotatik aplikatzen da? 2000n aplikatu ez bada, nola konpentsatu dira ekitaldi horretan behar baino gehiago eginiko orduak? ITG Agrícola-ren kasuan bezala, langileek beste negoziazioaren bateko hitzarmenean ezarrita zeuzkaten norberaren gauzetarako eguneko uko egin diezaietela eskatu al zaie?

- Gobernuak enpresa publikotzat edo Administrazioak parte-hartze nagusia duenektzat jotzen al du Nafarroako Kutxa eta Montepioa? Baiezkoan, zergatik ez da aplikatzen 35 orduko lanaldien araubide bera?

- Kutxako Enpresa Korporazioa eta Gizarte Ekintzako Fundazioa Administrazioak parte-hartze nagusia dueneko enpresak al dira, haietan boto-eskubideen gehiengoa Administrazioak izateagatik? Baiezkoan, zergatik behartzen dute urtean 1.774 orduko lanaldiko kontratuak sina daitezen?

- Zergatik ez dira foru lege horiek aplikatzen Trabajos Catastrales S.A., Cetenasa eta abarren kasuan?

Bilkura hura amaituta, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldearen iritziz Gobernuak ez die guk nahi bezala erantzun jabelduraren galderei, ez eta abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea betetzen duela frogatu ere, eta, beraz, larria da Nafarroako Gobernuaren erantzukizun politiko eza, foru komunitateko arauak ez ezik Europakoak ere urratzen dituelako, zehazki Baztordeak 2000ko uztailaren 26an emandako 2000/52/EE Zuzentaraua, estatu kideen eta enpresa publikoen arteko harremani buruzkoa, azken horiek honela definitzen baititu: "edozein enpresa zeinetan botere publikoek, zuzen edo zeharka, nagusigoa izan dezaketen, dela jabetza bitartez, dela finantzatuko partaidetzaren

bitartez, dela haren gaineko araudiaren bitartez"; aurrerago, berriz, hauxe zehazten du: "nagusigoa dagoela ulertuko da estatuak edo beste lurralde administrazio batzuek, zuzen edo zeharka, honakoak betetzen dituztenean enpresa batekiko:

a) enpresaren kapital izenpetu gehiena daukanean

b) enpresak jaulkiriko partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa daukanean; edo

c) enpresaren administrazio, zuzendaritza edo zaintzako organoaren kideen erdia baino gehiago izendatzea haren esku dagoenean".

Hori dela eta, Osoko Bilkurak erabaki hau onestea proposatzen da:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lanaldia murrizteko betebeharrak berehalakoan bete ditzan 15/2000 Foru Legearen esparruan, hark indarra hartu zuen unera, alegia, 2000ko urtarrilaren 1era eramanez ondorioak, murrizketa horrek kalterik ekarri gabe enpresa bakoitzean kontratu edo hitzarmenaren arloan indarra duen araudian ageri diren eskubideen eduki orokorrari.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aurreko puntuan ageri diren betebeharrak bete ditzala bai administrazioaren edo erakunde autonomoen partaidetza nagusia duten enpresetan bai enpresaren administrazio, zuzendaritza edo zaintzako organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzea administrazioaren esku dagoen fundazio edo entitate baliokideetan eta halaber horien menpeko enpresetan.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea. Mozio hori jabelduraren ondorioa da eta, Erregelamenduko 183. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan jabelduretatik heldu diren mozioei buruz xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuak hurrengo urteetan etxebizitzaren arloan izanen duen politikari buruzko mozio bat, ondotik heldu dena, aurkeztu du.

Mozioaren zioak:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak jabeldura bat proposatu zion Nafarroako Gobernuari hurrengo lau urteetan etxebizitzaren arloan izanen duen politikari buruz. Jabeldura hori 2001eko ekainaren 21eko Osoko Bilkuran eztabaidatu zen.

Jabeldurak bitariko helburua zuen: alde batek, jakitea Nafarroako Gobernuak ere ba al zuen herritarrek duten kezka bera gure erkidegoan etxebizitzaren arloan dagoen egoera kaskarrari buruz; eta bestalde, jakitea Nafarroako Gobernuak aukera eman behar al dion Nafarroako Par-

lamentuari 2001-2004rako etxebizitza planaren gaineko eztabaidan parte hartzeko, kontuan harturik plan horrek emanen dituela arazo honek eskatzen dituen irtenbideak.

Aitzitik, etxebizitza kontseilari Marcotegui jaunak egindako mintzaldi penagarriaren ondotik garbi gelditu zen Nafarroako Gobernua pozik dagoela arlo honetan egindako lanarekin (kontseilariak "oso ongi" kalifikazioa eman zion), ez duela aldaketa ñimiñoena ere sartu nahi (BOEen moduluak gehitzea ez bada, eraikitzaileen merkataritza etekina handitzeko), eta ez duela inolako asmorik 2001-2004rako Etxebizitza Plana Parlamentura igortzeko taldeek ekarpenak egin ditzaten.

Nafarroako Gobernuaren jarrera horri kezkarri irizita, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuaren etxebizitza politikari buruzko mozio hau aurkezteko beharra ikusi du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2001-2004rako etxebizitza planean sar ditzan Nafarroako Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, berriz ere, 2001-2004rako etxebizitza plana igor dezan Nafarroako Parlamentura, honek bere iritzia eman dezan, eta Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitzaren arloan daukagun arazo larriari aurre egiteko plan horrek balio dezan ezinbestekoak diren ekarpenak erantsi ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erantzukizun politikoak bere gain har ditzan, bai Parlamentu honek etxebizitzaren arloan hartutako erabakiak, bai babes-tutako etxebizitzaren eskariari eta herritar askoren kezari erantzuteko etxebizitza arloko politika eraginkor eta efizientea egiteko premia asebate ahal izateko.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan hobekuntza lanak egin ditzan**

### *ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan hobekuntza lanak egin ditzan".

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela

adierazi zuen Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bileran. Mozio hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdera hori izapidatzea onartu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Europar Batasuneko 1.257/1999 Erregelamenduak landa-garapenerako laguntzak arautzen ditu. Nekazaritza-ustiategietako inbertsioak "landa-

turismo" deritzen jardueren esparrukoak izan daitezke.

Horrek esan nahi du ezen, Europar Batasunaren iritziz, landa-turismoko inbertsioek, hau da, ATPek turismo-azpiegituretan eginiko inbertsioek, honako bi laguntza-bide hauetara jotzeko aukera daukatela: nekazaritza-inbertsio izateari dagozkionetara (interes-tasen hobariak) eta Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduera direnei ematen zaizkien zuzeneko laguntzetara.

1.- Landa-turismotzat jotzen diren jarduerak Landa Garapenerako Programaren barrenean finantzatu daitezkeen eta, beraz, Europar Batasunaren laguntza jaso dezaketen jardueren artean sartu al ditu Nafarroako Gobernuak?

2.- Gure Foru Komunitateko ATPak araubide horretan sar daitezke inbertsio-mota horri dago-kionez ere, halako moduan non bi kasuetan Europako finantzaketa izanen baitute?

Iruñean, 2001eko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

## **2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdera hori izapidatzea onartu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin

dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Kontseilariak, gure Komunitatean nekazaritza-elikagaien sektoreak gaur egun pairatzen dituen arazoak aztertzean, haren ahuleziarik handiena atomizazioa zela adierazi zuen, eta, irtenbide gisa, partzuergoen bidez eskaintzaren kontzentrazioa sustatu behar dela aipatu zuen.

1.- Nekazaritza-elikagaien arloko zenbat partzuergo eratu ziren 2000n zehar?

2.- Nekazaritza-elikagaien arloko zenbat partzuergo eratu dira, orain arte, 2001ean?

2.- Zure Departamentua pozik al dago arlo honetan erdietsi diren helburuekin?

Iruñean, 2001eko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Jose María Aierdi Fernández de Barrena

## **Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten erro-tuluak kendu izanari buruzko galdera**

*EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten erro-tuluak kendu izanari buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdera hori izapidatzea erabaki zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Herrilan eta Azpiegitura Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Joan den asteazkenean, ekainak 20, Herrilan Departamentuko Bide Zerbitzuko patruila batek, Zaraitzu Ibarreko zenbait puntutan, ibar horretako herri batzuen izena euskaraz adierazten zuten erro-tuluak kendu zituen.

Ekintza hori egin zen udal eta kontzejuetako alkate-udalburuek haren berri izan gabe eta haiek horretarako baimenik eman gabe. Hain zuzen ere, alkate-udalburu horiek jarriak ziren erro-tuluak, euren herrien gaztelaniazko izenarekin batera euskarazko izena ere ager zedin.

Horrelako ekintza ikusirik, honakoak dira gure galderak:

1.- Nork eman du seinale horiek kentzeko agindua?

2.- Seinale horiek –zeinak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak ez baitziren– kentzeko agindua zein arauditan oinarritu da?

3.- Zergatik ez zitzaien tokiko udal agintariei jakinarazi errotulu horiek kenduko zirela?

4.- Nafarroako Gobernuak herri horien izena euskaraz adierazten duten seinaleak kentzeko asmoa baldin badauka, zein ekintza egingen ditu Departamentu horrek Zaraitzuko bizilagunen gehiengoaren borondatea –zeina euren udal-ordezkariek euren herrien izenak euskaraz adie-

razteko harturiko erabakian islaturik baitago–errespetatuko dela bermatzeko?

5.- Nafarroako Gobernuak ibar horretako bizilagunei gaztelania hutsezko seinalizazioa haien gogoz kontra inposatzeko asmorik al dauka?

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## 2001eko Aurrekontu Orokorrek hirugarren munduarentzako ezartzen dituzten diru kopuruei buruzko galdera

*FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCÍA JAUNAK EGINA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2001eko Aurrekontu Orokorrek hirugarren munduarentzako ezartzen dituzten diru kopuruei buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdera hori izapidatzea onartu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Azken hilabeteotan zalantzan jarri da ea Hirugarren Mundurako lankidetzaren eta garapen-proiektuei laguntzeko xedez 2001erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek bideraturiko diru-kopuruak betetzen ote duen garai batean harturiko konpromisoa, alegia, helburu horrekin aurrekontuaren % 0,7 aurrekontu-araun ezarritako moduan bideratzekoa. Ehuneko hori aurrekontuko gastuen gainekoa zen, zenbait kontusail deskontatu ondoren,

hala nola Toki Ogasunen Fondoari edo Estatuarentzako Ekarpinari dagozkienak, ulertzen baita Administrazio Publiko horiek jadanik badaukatela % 0,7 hori lankidetzaren laguntzetarako bideratzeko konpromisoa.

Aipaturiko gaien sorturiko zalantzak direla-eta, haxe jakin nahi genuke:

- 2001eko Aurrekontu Orokorrek hirugarren mundurako laguntzetarako ematen duten zenbatekoa.

- Laguntza horiek zein ehuneko egiten duten aurrekontu osoarekiko, administrazio publikoetan %0,7ko konpromisoa jadanik badaukaten gastuetara doazen kontusailak deskontatu ondoren.

- Nafarroako Foru Komunitateko Barne Produktu Gordinarekiko ehunekoa.

- Nafarroako herritarrek urteroko errenta aitopena egitean Eliza Katolikoaren ordezkari bestelakotarako bideraturiko kopuruak Hirugarren Mundurako laguntzen zenbatekoaren barnean sarturik al daude?

- Herritarrek errentaren aitorpenean bestelako helburu horietarako laukitxoan lankidetzaren proiektuetarako bideratzen dituzten zenbateko horiek nola banatzen dira?

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Opiazeoen inguruko zenbait konturi buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak idatziz erantzuteko galdera egin du opiazeoen inguruko zenbait konturi buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdea hori izapidatzea onartu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Drogomenpekotasunei buruzko Foru Plana eta opiazeoen bidezko Nafarroako tratamendu zentro eta zerbitzuak kreditatzeko irizpideak eta baldin-

tzak ezartzen dituen irailaren 15eko 252/1997 Foru Dekretua kontuan izanik, hauxe jakin nahi da:

– Gure Komunitatean opiazeoak hartzeari buruzko azterlanik edo erroldarik ba al dago? Baiezkoan, zer-nolako azterlan da hori?

– Zenbat toxikomano dago gure Komunitatean? Horietatik, zenbat dira heroinomanoak, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuak?

– Opiazeoekiko menpekotasuna daukaten pertsonentzako ordezeko metadona-tratamenduaren programarekin zenbat osasun-etxe eta establezimenduk bat egin dute?

– Zenbat gaixo ari dira parte hartzen metadona-programan, adinaren eta sexuaren arabera sailkatuak? Horietatik, zenbat gaixo kalkulatu da ordezeko tratamendu horren bidez egonkorturik daudela?

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Telefonia mugikorreko estazioek osasunean izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI ÓSCAR ALONSO TOLEDO JAUNAK EGINA*

Foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du telefonia mugikorreko estazioek osasunean izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdea hori izapidatzea onartu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, telefonia mugikorreko oinarriko estazioei buruzkoa, Nafarroako Gobernuak Osasun Kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Berriki, eskualde-esparruko idatzizko hedabide batean, "Telefonia mugikorreko oinarriko estazioek kalteturikoen Plataforma" deritzoneko kide

batek iritzi-artikulu batean baieztatu zuen Nafarroako Gobernuak 2000n liburuxka bat argitaratu eta bertan ohartarazten zuela telefonia mugikor automatikoko oinarriko estazioetatik hurbil dauden inguruetan osasunerako balizko ondorio batzuez. Aipatzen direnak hauexek dira, zehazki: "buruko mina, insomnioa, oroimen-galera, larrua-zaleko gaixotasunak..."

Hori dela-eta, honako galdera hauek egin ditugu:

1.- Egia al da Nafarroako Gobernuak horrelako liburuxka bat argitaratu zuela?

2.- Egia bada, zientifikoki egiaztaturiko zein ondoriotan, alegia, metodo zientifikoa aplikatu izanaren ondoriozkotan (hipotesi-kontrastea, saiakuntza-errepikapena, dosimetria-kontrola, epidemiologia eta abar) oinarritzen dira horrelako baieztapenak?

3.- Zein lekutan banatu zen aipaturiko liburuxka?

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Óscar Alonso Toledo

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Aukera Berdintasunari buruzko Plana Parlamentura hemendik gutxira igortzeko asmorik ote duen jakiteko**

*FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA*

Foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak ahoz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Aukera Berdintasunari buruzko Plana Parlamentura hemendik gutxira igortzeko asmorik ote duen jakiteko. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, galdera hori Osasun Batzordean izapidatzea onartu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariari, ahoz erantzun diezaion Gizarte Gaietarako Batzordean.

2000. urterako aurrekontuen gaineko akordioan, Nafarroako Gobernuak eta Alderdi Sozialistak beren gain hartu zuten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat batera idazteko ardurara.

Negoiazioetan urtebete baino gehiago eman ondoren, Nafarroako Gobernuak PSN alderdiari deitu behar zion azken xehetasunen berri emateko. Joan den otsailaren 7tik Parlamentuko talde honek ez daki ezer ere plan horri buruz.

Berriki, UPN Parlamentuko Taldeko Gizarte Gaietarako eledunak zenbait adierazpen egin zituen Osoko Bilkuraren aurrean plan hori praktikan jartzeari buruz. Horrekin, PSNrekin egindako akordioa hautsi eta Parlamentuak hartutako erabaki bat urratzen ari da.

Hori guztia dela eta, ondoko galdera egin nahi dugu:

Ba al du Nafarroako Gobernuak Aukera Berdintasunari buruzko Plana Parlamentura hemendik gutxira igortzeko asmorik?

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández



---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren aldaketa dela-eta Prentsa, Argitalpen eta Protokolo zerbitzuburuak eta Zerbitzu Juridikoek egindako txostenak ikusita, ERA-BAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian akatsak eta ahazteak atzeman dira, eta deialdia zuzenduta onetsi behar da. Deialdi hori 2001eko maiatzaren 7ko erabakiaren bidez onetsi eta 2001eko maiatzaren 30eko 66. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Eskabideak aurkezteko epea 30 egun natural luzatuko da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatuta.

**3.** Deialdia, sarturiko aldatetekin, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko**

**1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore izateko lanpostu bat txanda irekian oposizio-lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaia Biltzarreko nomina eta plantillako funtzionarioa izanen da, eta indarra duten xedapenek Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat ezarritako eskubide eta betebeharrak izanen ditu; hain

zuzen ere, aipatu lanpostuari ezarritako eginkizunak beteko ditu.

1.3. Egungo lanpostuen sailkapeneko C mailari dagozkion lansariak izanen ditu lanpostuak, eta Nafarroako Parlamentuko indarreko plantilla organikoak esleitutako ordainketa osagarriak ere gehituko zaizkio.

1.4. Hautapen probak gainditu eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatu ondoren, Nafarroako Parlamentuan sartu eta funtzionario izaera hartuko duen izangaia Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatuko da, eta alta emanen zaio, aipatu araubideak aurreikusitakoaren babesean.

Baldin eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatzen den funtzionarioa eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubidean afiliaturik badago –alegia, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzuko langileen estatutuak eta gainerako xedapen osagarriek aipatzen duten hartan–, aukeran izanen du bertan segitu edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea.

1.5. Parlamentuko organo eskudunek ezarriko dute lanaldia; edonola ere, lanaldia alda daiteke, zerbitzu-arrazoia direla-eta.

**2. oinarria.** Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

Nazionalitate espainiarra izatea.

Adinez nagusia izatea.

Goi batxilergoaren edo bigarren mailako lanbide heziketaren titulua edo baliokidearen jabe izatea, edo aipatu tituluak bat eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko zein psikikoa izatea.

Eginkizun publikoak betetzeko desgaitu edo gabetua ez egotea, eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Deialdi honetako zazpigarren oinarriak ezarri epe eta moduan egiaztatu beharko ditu aurreko baldintza horiek lanpostua ateratzen duen izangai onartuak, eta eskabideak aurkezteko epea amaizten den egunean betetzen dituela ulertuko da. Halaber, hautapen-prozedura osoan zehar bete beharko ditu bigarren oinarri honek dakartzan baldintzok; alegia, izendapenera arte.

### 3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta, 12, Iruña) aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatu bideetako edozein erabiliz, hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatuta. Eskabide horiek deialdi honetako I. eranskinen agertzen den ereduaren arabera izan beharko dira. Eskabide horietan izangaiek adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta. Merezimendu-lehiaketarako aurkeztu dituzten merezimenduen egiaztagiria ere erantsiko zaizkio eskabideari.

3.2. Minusbaliatuek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar ditzaketen egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, horren beharrik izanez gero. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute zein ezintasun duten eta zein egokitzapen eskatzen duten. Minusbaliotasunaren ziurtagiria ere, erakunde eskudunek luzatua, erantsi beharko dute.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

### 4. oinarria. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

4.2. Izangai baztertuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara-

tu eta biharamunetik hasita hamar egun baliodunen epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak deialdia bete gabe gelditu dela adierazteko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

4.5. Izangai baztertirik ez badago zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

### 5. oinarria. Epaimahaiaren osaketa, eraketa eta iharduketa.

5.1. Epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Lehen Lehendakariordea.

Ordezkoa: Isabel Arboniés Bermejo andrea, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariordea.

Mahaikidea: Carlos Javier Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Francisco Del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Mahaikidea: Adolfo Morales Gordo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Mahaikidea: Carmen Lizarraga Lezáun, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatuta.

Ordezkoa: Juana Díaz de Rada Turumbay, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatuta.

Idazkaria, hizpide eta botoarekin: Carlota Aranz Marti andrea, Nafarroako Parlamentuko transkriptorea.

Ordezkoa, hizpide eta botoarekin: Francisca Palma Romero andrea, Nafarroako Parlamentuko transkriptorea.

Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

5.2. Epaimahaiko kideek ezin izanen dute parte hartu, eta halaxe jakinaraziko diote Mahaia-ri, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 28. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo absolutua bildu gabe.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egin ahalko die proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

5.6. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantza edo erreklamazioak, bai eta aurrikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

## 6. oinarria. Oposizio-lehiaketaren garapena.

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan egingen da: lehenbizi lehiaketaldia, eta, gero, oposizioaldia, oinarri hauetan adierazitako moduan.

6.2. Oposizio-lehiaketa 2001eko irailean hasiko da. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan zehaztuko dira probak hasiko diren tokia, data eta ordua. Gero, epaimahaiak garaiz jakinaraziko ditu gainerako probak egiteko iragarkiak, arazuko moduan.

### 6.3. Lehiaketaldia.

6.3.1. Alegatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz puntuatuko dira.

6.3.2. Epaimahaiak edozein unetan eska ditzake izangaiek alegatutako merezimenduei buruzko azalpenak eta datu osagarriak.

Izangai bakoitzari dagozkion merezimenduak arazoiz baloratuko ditu epaimahaiak, baremoaren atal bakoitzaren arabera; edonola ere, ezin izanen da alegatu gabeko merezimendurik, edo dokumentuz egiaztatu gabekorik, aintzat hartu, ez eta atal bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa gainditu.

6.3.3. Lehiaketaldia bukatu ondoren eta oposizioaldia hasi baino lehen, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean jarriko dira aldi horretan izangaiek lortu dituzten puntuazioak. Izangaiek oposizioaldiko probetan ateratako puntuazioari gehituko zaio lehiaketaldian ateratako puntuazioa.

Horrela aterako da oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioa.

### 6.4. Oposizioaldia.

6.4.1. Oposizioaldiak ariketa hauek izanen ditu:

– Lehenbiziko ariketa:

Deialdi honen III. eranskineko programaren inguruan epaimahaiak aurkezten dituen gai edota aferei idatziz erantzutea.

Probaren iraupena ez da bi ordukoa baino luzeagoa izanen.

– Bigarren ariketa:

a) Mekanografia proba. Gutxieneko abiadura, 250 pultsazio minutuko. Proba honetarako oposizio egileek beraien makinak erabiliko dituzte, eta elektrikoak edo elektronikoak debekatuta egonen dira. Epaimahaiak emandako idazkia transkribatzeko moduari dagozkion zehaztasun batzuk ezarri ahalko ditu. Proba IV. eranskinean xedatutakoren arabera egingen da.

b) Ortografia. Epaimahaiak prestatutako ortografia proba bat, diktatua edo galdetegia, burutzea izanen da.

– Hirugarren ariketa:

Idatziz eta gehienez ere bi ordutan, epaimahaiak aurkeztuko dituen ariketa praktiko bat edo batzuk egitea, Nafarroako Parlamentuko transkriptoreen kidegoko funtzionarioei dagozkien eginkizunei buruzkoak.

6.4.2. Oposizioko ariketen balorazioa gehienez 100 puntukoa izanen da, eta proben arabera honela banatuko dira:

Lehenbiziko ariketa:

Gehienez ere 30 puntu, eta 15 puntu erdiesten ez duten izangaiek baztertuak izanen dira.

Bigarren ariketa:

Mekanografia proba: gehienez ere 20 puntu, eta 10 puntu erdiesten ez duten izangaiek baztertuak izanen dira.

Ortografia proba: gehienez ere 20 puntu, eta 10 puntu erdiesten ez duten izangaiek baztertuak izanen dira.

Hirugarren ariketa:

Gehienez ere 30 puntu, eta 15 puntu erdiesten ez duten izangaiek baztertuak izanen dira.

6.4.3. Ariketa bakoitza bukatutakoan, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Parla-

mentuko iragarki oholean jarri ere, ariketa gainditu duten izangaiei zerrenda haien kalifikazioekin, eta, halaber, oposizioko hurrengo ariketa zein toki, egun eta ordutan egingen den, 48 ordu lehenagotik bederen.

6.4.4. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahiko kontsideratzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta agertzen ez diren izangaiek oposiziotik baztertuta geratuko dira.

6.4.5. Hautapen probak egiteko, denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldutakoren arabera.

**7. oinarria.-** Probak gainditzten dituztenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak zerrenda bat jarriko du Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean; oposizioaldia gainditu dutenen zerrenda, hain zuzen ere. Izangaiek bakoitzak lortu dituen kalifikazioak batuta ateratako puntuazioaren arabera jarriko da aipatu zerrenda. Halaber, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio puntuaziorik altuena lortu duen izangaiearen aldeko izendapen proposamena.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturalen barrenean, proposatutako izangaiek ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte Biltzarreko Erregistro Orokorrean:

Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo izangaiearen nazionalitatea eta nortasuna erakusten dituen agiri baliokidea.

Deialdiaren bigarren oinarrian eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak luzatutako txostena, karguari dagozkion eginkizunak betetzea galarazten duen eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Minusbaliaren bat alegatu duten izangaiek, gainera, hura deialdiaren xedeko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez dagoela, eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik ez dela bereizia izan dioena.

Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela zin egin edo hitz ematea.

7.3. Aipatu epearen barrenean, eta behar bezala arrazoituta ezinbesteko kasuak salbu, agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta haien jarduketa guztiak deusezturik geratuko dira, eskabidearen faltsukeriagatik izan dezaketen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko idatzian aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baja bete beharko du, probak gainditu dituztenen zerrendan –7.1 idatzian aipatutakoan, hain zuzen ere– hurrengo den izangaiearekin bete ere, eta azken horrekin ere aurreko idatzietan adierazitako moduan jokatu da.

**8. oinarria.-** Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, ebazpenaren bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duen izangaia izendatuko du Nafarroako Parlamentuko funtzionario, transkriptor lanpostua betetzeko.

8.2. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendapena jakinarazi eta ondoko hilabetean hartu beharko du lanpostuaren jabetza izendatutako izangaiek. Aipatu epean jabetza hartzen ez badu, Nafarroako Parlamentuko funtzionario izaera hartzeko eskubide guztiak galduko ditu, aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu. Halakorik gertatuz gero, 7.4 idatz-zatian ezarritakoari jarraituko zaio.

**9. oinarria.-** Agiriak itzultzea.

9.1. Aurkezturiko agiriak erretiratzten ahalko dituzte izangaiek, baldin eta alde zuzenetik horretarako eskaera espresa egiten badute, non eta erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu ez den. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da; epe hori kontatzen hasiko da izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro direnean.

9.2. Aurkezturiko agiriak erretiratu gabe aurreko idatz-zatian aipaturiko epea igaro ondoren, izangaiek horiek berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, hark galdu egingen du horretarako eskubidea, eta erretiratu gabeko agiriak suntsitu egingen dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak itzultzen

ahalko zaizkio erreklamazio edo errekursoaren izapidatzeak posible egiten duenean.

#### 10. oinarria.- Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, bere oinarrien aurka, izendapen-erabakiaren aurka eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta har ditzakeen gainerako erabakien aurka, ondorengo errekursoetako bat erabil daiteke:

a) Berraztertze errekurtsua, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Parlamentuko Lehendakariak edo epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko ematen dituzten gainerako egintzak direla-eta, gora jotzeko errekurtsua paratu ahalko da Nafarroako Parlamentuaren Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

### I. ERANSKINA Eskabide eredu

\_\_\_\_\_/A, adinez nagusi, \_\_\_\_\_ Nortasun Agiri Nazionaleko zenbakia duena \_\_\_\_\_, 19.....(e)ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_(a)n jaioa, \_\_\_\_\_(e)koa, helbidea \_\_\_\_\_n, \_\_\_\_\_ kalendar, \_\_\_\_ zk.an, \_\_\_\_ pisan, \_\_\_\_\_ posta kodea, eta \_\_\_\_\_ telefono zk.a dituen.

#### HAUXE ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartu nahi duela; izan ere, 2001eko maiatzaren 7an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hori.

Karguan aritzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela.

Ez duela indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ezta desgaitua ere eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren bigarren oinarrian adierazitako titulazioaren jabe dela.

Eskabideak aurkezteko emandako epea amaitzen den egunean, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

Baduela/ez duela minusbaliotasunik. Eskabideari erantzen zaion dokumentuan egiaztatzen duela hori, hautaprobak denbora eta baliabideen aldetik egokitzea eskatzeaz batera.

Azaldutakoaren ondorioz,

HAUXE ESKATZEN DU: Eskabide honetan aipatzen den deialdirako onartua izatea. Deialdian eskatzen diren dokumentuak eta merezimenduen egiaztatgiriak ere erantzen zaizkio eskabideari.

Iruñean, 2001eko ..... aren .... (e)an

### II. ERASKINA Merezimenduen baremoa

#### 1. Ikasketa merezimenduak

a) Ikasketa tituluak, ofizialki ezagutuak, epaimahaiak baloratuko dituenak: 4 puntu arte.

b) Bestelako ikasketak, epaimahaiak baloratuko dituenak: 2 puntu arte.

#### 2. Administrazioan sartzera eta karrera.

a) Administrazio publikoan lortutako oposizio, lehiaketa edo oposizio-lehiaketengatik, epaimahaiak baloratuko ditu, gehienez ere, bakoitzeko 1,5 puntu eta atal honetan osoko kopurua ez da 4 puntu baino gehiagokoa izanen.

b) Administrazioak emandako ohorezko aipamenak eta espezializazio ikastaroetara joan izana, epaimahaiak baloratuko dituenak: gehienez ere 2 puntu.

#### 3. Aintzinasuna.

a) Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuan lan egin izana: zerbitzu urte bakoitzeko, 0,50 puntu.

b) Beste administrazio publikoren zerbitzuan lan egin izana: zerbitzu urte bakoitzeko, 0,40 puntu.

c) 3. atal honi dagokion gehieneko puntuazioa ez da 6 puntukoa baino handiagoa izanen.

4. Administrazio publikoan zein enpresa pribatu, deitutako lanpostuetako eginkizunen parekoak bete edo zerbitzuak eman izana: epaimahaiak baloratuko ditu, 6 puntu arte, kontuan izanik betetako lanpostuen kategoria, sartzeko zailtasunak, aintzinasuna eta destinoak.

### 5. Merezimendu espezifikoak.

Bete behar den lanpostuaren gaietan ezagupen espezifikoengatik, epaimahaiak baloratuko dituenak: gehienez ere 6 puntu.

#### BAREMOA APLIKATZEKO ARAUAK

1. Izangaiek alegatutako merezimenduak aurkeztuko dituzte ordenean sailkatuta, eraskin honetan dagoen puntuazio eskemarekin bat.

2. Egiaztapena ondoan zehazten den eran burutuko da edo zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabideren bitartez:

2.1. Titulu akademikoak eta ikasketak: jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.

2.2. Administrazioan sartzea eta karrera: administrazio ebazpenaren kopia kautotua, fotokopia konpultsatua edo egiaztagiri ofiziala.

2.3. Aintzinasuna: emandako zerbitzuen egiaztagiri ofiziala edo egiazki eman den zerbitzualdiaren zinpeko deklarazioa, eta azken hau, praktiketako funtzionari izendapenaren aurretik, dagokion egiaztagiri ofizialaren bidez ziurtatu beharko dena, hala behar bada.

2.4. Merezimendu espezifikoak eta administrazio publikoan zein enpresa pribatuan, deitutako lanpostuetako eginkizunen parekoak bete edo zerbitzuak eman izana. Egoki irizten zaien frogabideak, adierazi beharko direlarik gai bakoitzean izaten diren ezagupenak, bai eta merezimendu gisa alegatzen diren lanak egiaztatu ere.

3. Egiaztagiriek baremoaren aplikazioak eskatzen duen informazio guztia izan beharko dute. Egiaztatu gabeko merezimenduak ez dira kontatuko.

### III. ERANSKINA

1. GAIA.- 1978ko Espainiako Konstituzioa: hatsapen orokorrak. Espainiarren funtsezko eskubide eta eginbeharrak.

2. GAIA.- Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresua eta Senatua. Osaketa eta eginkizunak.

3. GAIA.- Estatuko Gobernua eta Administrazioa. Estatuko botereak eta haren eginkizunak. Gobernua. Administrazioa.

4. GAIA.- Botere Judiziala: konstituzio eraketa. Konstituzio Auzitegia: osaketa, izaera eta eskumenak.

5. GAIA.- Estatuko herrialdeen antolamendua: printzipioak. Autonomi Erkidegoak. Haien konstituzio printzipioak eta haien erakunde antolamendua. Toki administrazioa.

6. GAIA.- Nafarroa Gaztelako Koroan sartu aitzin. Nafarroa Gaztelako Koroan sartzea. Foral-tasuna zaintzeko erakundeak.

7. GAIA.- 1841eko Lege Itundua. Prestaketa. Izaera juridikoa eta haren edukiaren azterketa.

8. GAIA.- Nafarroak eta Estatuak izenpeturiko hitzarmen ekonomikoen historia. 1990eko abenduaren 26ko Hitzarmen Ekonomikoa: egitura. Horren ondoriozko funtsezko printzipioak.

9. GAIA.- 1978ko Espainiako Konstituzioko lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Erantzua Birrezarri eta Hobetzeari buruzko testua: izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Aurretikoak. Prestaketa. Edukia.

10. GAIA.- Nafarroako Foru Erakundeak. Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Historia, osaketa eta eginkizunak. Instituzioaren autonomia: aurrekontuak, erregelamendua eta barne gobernua.

11. GAIA.- Foru Diputazioa edo Nafarroako Gobernua. Eginkizunak. Osaketa. Nafarroako Gobernuko Lehendakaria. Hautaketa. Nafarroako Parlamentuarekiko erantzukizun politikoa.

12. GAIA.- Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Administrazioaren antolamendua eta egitura.

13. GAIA.- Administrazio jardunbideko hatsapen orokorrak. Horren arauak. Administrazio jardunbideko denborak: egun eta ordu baliodunak, epeak zenbatzerakoan. Agiriak hartu eta erregistratzea.

14. GAIA.- Funtzionari publikoaren harremanaren izaera juridikoa. Erantzukizun administratibo, zibil eta kriminala. Diziiplina espedienteak.

15. GAIA.- Foru parlamentarioak: eskubideak eta betebeharrak. Parlamentuko taldeak.

16. GAIA.- Parlamentuaren antolaketa: Lehendakaria, Mahaia eta Eledunen Batzarra. Batzordeak, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

17. GAIA.- Parlamentuaren jarduera: bilkurak, gai zerrenda, bozketak, epeen zenbaketa eta agiri-urri aurkezpena.

18. GAIA.- Ohiko legegintza-jardunbidea. Legegintza-jardunbide bereziak.

19. GAIA.- Jabeldurak eta galderak. Mozioak.

20. GAIA.- Nafarroako Parlamentuko langileen estatutua. Zerbitzuen egitura. Legelari Nagusia. Langileen gaineko arautzea.

21. GAIA.- Nafarroako Kontuen Ganbara: izaeraren, eginkizunen, antolamenduaren eta jardueraren azterketa laburra.

22. GAIA.- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa. Arartekoaren estatutua. Eginkizunak, antolamendua eta jarduera.

#### IV. ERANSKINA

Mekanografia proba.

##### a) Planteamendua.

Proba honen xedea da izangaiek mekanografian duten egiazko abiadura neurtzea eta hori kalkulatzeko pultsazio guztiak zenbatu eta hortik ateratako kopuruari egindako oker eta hutsak kenduko zaizkio.

Izangaiek berek eraman beharko dute idazmakina. Makina horrek, beti ere, mekanikoa behar du izan.

##### b) Proba egiteko testua

Epaimahaiak ematen duen testu bat kopiatu beharko da. Literatur testu bat izanen da eta, zenbakiak izaten ahal baditu ere, haren erredakzioan saihestuko dira buruhauste bereziak (zutabeak, tabulazio anizkoitzak, azpi-indizeak, formulak), era horretan nahi baita bermatu izangai guztiak baldintza berberetan jardutea, zeinahi direlarik ere bakoitzaren idazmakinaren ezaugarri teknikoak, eta lortu azterketen puntuazioa objektiboa izatea.

Kopia egiteko denbora zazpi minutukoa izanen da.

Aitzinetik, gutxienez, bost minutu utziko zaie izangaiei, nahi izanez gero, hatz-ariketak egin ditzaten.

##### c) Puntuazioa.

Emandako pultsazio zuzenak baizik ez dira kontatuko, eta halakotzat hartuko dira, soilik, Epaimahaiak emandako jatorrizko testuarekin bat datozenak.

Pultsazio baliodunak:

– Jatorrizkoarekin bat datorren karaktere, tarte edo zeinu bakoitzarengatik: Pultsazio bat.

– Letra larri bakoitzarengatik: Pultsazio bat gehiago.

– Azentu-marka bakoitzarengatik: Pultsazio bat gehiago.

– Lerro-aldatze bakoitzarengatik: Bi pultsazio gehiago.

Zenbatuko ez diren pultsazioak, egin ez izanak eta zehapenak:

Ez dira zenbatuko jatorrizkoarekin bat ez datozen pultsazioak: letra, tilde edo zeinuak behar den tokian ez badaude, errepikatzen badira edo edozein arrazoiarengatik sobran baldin badaude, ez dira zenbatuko, eta bai, ordea, zehatuko, hiru pultsazio deskontatuz, pultsazio oker bakoitzarengatik. Orobat, egin ez izanak ere zehatuko dira, hiru pultsazio deskontatuz, egin gabeko bakoitzarengatik. Hartara, azterketa epaimahaiak emandako jatorrizkoaren itxura formalari lotuko zaio, orpoz orpo, ez baita inolaz ere kontuan hartuko proposatutako ereduari ez lotzeagatik egindako gehiegizko pultsaziorik.

Ez da zilegi izanen testua kopiatzean egindako okerrak edo egin gabe utzitakoak zuzentzea; beraz, zeinu baten gainean beste bat ezartzen bada, baliorik gabe utzi eta aurreko idatz-zatian aipatu eran zehatuko da.

Lerro bereko hitz bat edo gehiago idatzi gabe uztea zehatu eginen da, halako eran non bost pultsazio deskontatuko baitira egin gabe utzitako hitz bakoitzarengatik.

Izangai batek egindako azterketako testuan lerro bat edo gehiago idatzi gabe agertuz gero, hogeit hamar pultsazio deskontatuko dira, paratu gabeko lerro bakoitzarengatik.

Proba hau gainditzeko gutxienezko abiadura mila zazpirehun eta berrogeita hamar pultsazio baliodunekoa izanen da (250 pultsazio minutuko), eta abiadura hori erdiesten ez dutenak baztertuak izanen dira.

Gutxienezko maila hori gainditzen duten azterketak gutxienez gehienera ordenatuko dira, pultsazio balioduen kopuruaren arabera, eta hurrengo baremoarekin bat kalifikatuko:

Minutuko 250 pultsazio baliodunetik 270 bitarte: 10 puntu.

Minutuko 271 pultsazio baliodunetik 290 bitarte: 12 puntu.

Minutuko 291 pultsazio baliodunetik 310 bitarte: 14 puntu.

Minutuko 311 pultsazio baliodunetik 330 bitarte: 16 puntu.

Minutuko 331 pultsazio baliodunetik 350 bitarte: 18 puntu.

Minutuko 351 pultsazio baliodunetik gora: 20 puntu.

##### c) Probaren kronometrajea

Lehenik eta behin, epaimahaiak orri zuri bana emanen die izangaiei, nahi izanez gero, hatz ariketak egin ditzaten.

Aurreko hori bukatu, alde zuzeneko ariketetan erabili diren orriak bildu eta baliorik gabe utzi, eta ariketari berari hasiera eman baino lehenago, proba hasi eta bukatzeko seinaleen berri emanen zaie oposiziogileei (azken hau bi alditan, betiere aurreabisua ematen denetik behin betiko gelditzeko agindura eman arte minutu bat utzita).

Gelditzeko azken aginduari kasu egiten ez dioten izangaia bazterturik geldituko dira.

Kopiatu beharreko testua eta azteketa egiteko orriak banatuko zaizkie parte-hartzaileei. Lerroen artean tarte bakarra utziz kopiatu beharko da testua (lerroarte bakuna) eta jatorrizkoari atxikiko zaio, orpo orpo.

Epaimahaiak, antolamendu-beharrak direla medio, talde bat baino gehiago egin ahal izanen ditu. Hala gertatzen bada, talde bakoitzari dagokion proba hasterakoan testuaren zozketa errepikatuko da, adierazi den eran.

|   |   |
|---|---|
| <p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p> | <p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p> |
|---|---|